

www.noaua.com

# Noaua !!



Hasi da txotx garaia



Bengoetxea anaiak, Saharatik bueltan

“Haien egoera latza da”



itseski fresko eta egosi-trainera eta txakolina

# txirpi ziaboga

Estrata Kalea-1-AGINAGA

Bertan dastatu




**40€tik aurrera**

Eraman gure TRAINERA ZIABOGA

Telefonoz egin eskaera **943 372 808**

50. Jaikin, nire KULTURAREN JAIOEGIA



# Jaikin

## haizea dakiten orriak

Harpidetu zaitez eta oparia jasoko duzu  
 deitu: 943 718097  
 Idatzi: jakin@jakingunea.com  
 Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro  
 Oparia: 50 urtetako 707 zenbakiak DVD baten

# Alkartasuna

Herriaren  
Kooperatiba  
Ekartea

## Berogailuetarako gasoil zerbitzua prezio onenean




## etxez etxeko banaketa

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

## Badok Amairu !!

### Eneritz Esnaola: "Lekurik ederrena, Aginagako erribera"

**A**ginagan bizi da eta Aginaga **A**du gustuko. Erribera bereziki. Eta udaberrian, are gehiago.

1. Jakirik gustukoena.  
Arrautza frijitua patatekin.

2. Ohitura txarren bat.  
Lo asko gitea.

3. Zer gordetzen duzu sakelean?  
Ezer ez. Dena poltsan eramaten dut.

4. Zertan berpiztuko zinateke?  
Ezertan edo inorengan ez.

5. Zeri diozu beldurra?  
Altuerari.

6. Miresten duzun pertsona.  
Gure amona.

7. Ezin zaitezke bizi...  
Lagunak eta familia gabe.

8. Egindako erokeria handiena.  
Momentuz, egiteke daukat erokeria handiena.

9. Liburu bat.  
Iñigo Lamarkaren "Gay nauzu".

10. Film bat.  
"Braveheart".

11. Leku bat.  
Irlanda.



12. Herriko lekurik ederrena.  
Aginagako erribera.

13. Urtaro bat.  
Udaberria.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

"EZ DOK AMAIRU" ERAKUSKETA **5. OR.**

SAHARAN IZAN DIRA BI HERRITAR **6. OR.**

ZERGA EGUTEGIA ONARTU DU UDALAK **8. OR.**

LAN MUNDUA EUSKALDUNDUZ **9. OR.**

MANIFESTAZIO JENDETSUA **10. OR.**

TXOTX GARAIA HASI DA **12. OR.**

AMADOR GRANADOREKIN SOLASEAN **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

## Eskatzea libre

Duela lau urte zabaldu genuen tarte hau. Iritzi eta hausnarketarako leihoa. Hasieratik gaur arte, badira txoko honetan lanean jarraitzen dutenak. Bejondeizuela! Eskerrik asko ere, orain arte bidelagun izan ditugunoi. Errelebo garaia ere iritsi ohi da eta orain guri dagokigu horrelako lanetan jardutea.

Bestelako kontuak txoko honetara biltzeko ahalegina egin nahiko genuke. Baina ez da lan erraza izango. Bereziki, Madrilgo atentatuaren errautsek egunkarietako ia orri gehienak estaltzen dituzten garai hauetan. Bestelako errautsik ere izango dela iragarri dute Donostiako agintariek eta hortxe gabiltza, batzuen eta besteen errautsen ito-larritik ihes egin nahirik.

Eskerrak bestelako kezkarik ere baden. Gure webgunean, noaua.com helbidean, eztabaida politak zabaldu dira azken bolada honetan. Eskolaz kanpoko begiraleei buruz galde egin du berriki Marijok. Gero eta gazteagoak ei dira eta guraso den aldetik, gainontzeko gurasoen iritzia ezagutzeta gustatuko litzaioketela. Eztabaida polita, segida izan duena. Guraso diren gainontzekoek ere aberastu dezaketzen eztabaida.

Ez pentsa, bada suaren gainean dantzan egitea gustuko duenik eta ika-mikarako gogoz dabilenik. Baina, zorionez, txantxetarako aukera ere badugu noaua.com webgunean gabiltzanok. Urtezahar gaua herrian ospatu nahi zuen "neskatxa gazte" ezizenez idatzi zuenak. Erantzunak, berehalakoan: "BTK jarriko balute earki ibiliko giñan alde batetik bestea dantzan!". Beste eztabaida-foro zale batek, berriz, "Bai ta gañea daude... on onak! bereziki 3 tanbortxo dazkana, turukutukutukutunn...".

Urtezahar gaueko ospakizunetan ez ziren izan BTK perkusio taldekoak. Geroztik, asko izan dira Usurbilgo perkusio jotzaileek jaso dituzten proposamenak. Okerrik ez bada, ordea, Inauterietan ikusiko ditugu berriz ere danbor festan. Hala esan digu taldeko kide batek. Hala balitz, Inauterietako antolatzaileek erraza lukete gaia aukeratzea: "Brasilgar gaua". Carlinhos Brown-en mozorroa egitea ez da zaila. Zailagoa litzateke hilabete eskas batean batukada osatzea. Baina horren premiarik ez da. Hortxe dira BTKkoak. Eskatzea libre da, ezta? Tabernari maiteok, hasi *caipirinhak* prestatzen...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO.

IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urtarrilak 26. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 22.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALARUNTZAK**

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10  
 Telf. 943 37 33 48  
 943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

**LABE-GOXO**

**txirriStra**

KONTSEJU ZAHARRA 13  
 943 300 400

piatxoak  
 ogi tartekoak  
 plate konbinatuak

**TABERNA**

**Zendoia**



Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71



ARRAINDEGIA

**PELLO**

Puntapax Kalea, 7  
 Tlf 36 21 64  
 USURBIL



## “Ez dok amairu” erakusketa Usurbildik kanpo erakutsiko da

Jexux Artze taldeak "Ez dok amairu" erakusketa prestatu zuen 2003an, Jexux Artze txalapartaria hil eta urtebetera. Udarregi ikastolan ikusgai jarri zen erakusketa hark "Ez dok amairu" taldearen sorrera, garapena eta banatzea azaltzen zuen. 2004an, Jexux Artze talde-

ak ondare hori Usurbilgo udalaren esku utzi zuen. Orain, udalak, beharrezko baimen guztiak lortu eta gero, erakusketa Euskal Herrira eta atzerri-za zabaltzeko ardura hartu du. 1.500 diptiko argitaratu ditu instituzio ezberdinei erakusketa hori jartzeko gonbita eginez.

## Kale Nagusiaren berritze-lanak San Inazioko errotondaraino iritsiko dira

Hasierako proiektuaren arabera, Kale Nagusiko urbanizazioaren berritze-lanak udaletxe parean amaitzekoak ziren. Baina lan horiek San Inazio errotondaraino iritsiko dira. Udaletxe pareraino norabide bakarra izango du Kale Nagusiak, Aginagarako norabidea. Oinezkoentzako espaloiak ere jarri dira Kale Nagusian.

### Oxtapeko zubia

Urbanizazio-lan hauekin harrema-

natuta dago Kalezarreko zubi zaharra kentzeko proiektua. Udalak jada eskuartean du Kale Nagusitik Kalezarrera doan zubi zaharra, Oxtapekoa alegia, kendu eta eremu hori berritzeko txostena. Oraindik obra hau egiteko esleipena egin gabe badago ere, duela gutxi hirugarren kreditu aldaketa onartu zuen udalbatzak. Kale Nagusia eta Kalezar lotzeko espalo berri bat aurreikusten da, eta egitasmoa gauzatzeko 275.000 euroko inbertsioa egin beharko litzateke.

## Kooperatibak lanpostu bat bete behar du

Administrari lanpostua bete nahi du Alkartasuna Kooperatibak. Lanaldi osorako izango da. Lanpostu honetako zeregina fakturen kontrola eramatea litzateke, produktuen harra, eguneko kaja eta kontuak, kobraketak, stockaje kontrola, eskaerak... Beharrekoa denean denda eta biltegi-ko beste lanak. Lanpostuaren kategoria eta erantzukizuna dela eta, eska dakioken beste edozein eginkizun.

Otsaila arte behin behineko kontratua izango da, hortik aurrera behin betiko kontratua egiteko aukera izango da.

### Bete beharreko baldintzak

- Administrari edo horren baliokide den beste titulu baten jabe izatea.
- Ordenagailuan microsoft office-n erabileran trebetasuna, baita kontabilitate programaren batean, Interneten...
- Nekazaritza inguruko materialen ezagutza.
- Gaztelaniaz lan egiteko gaitasun osoa izatea.
- Gida baimena.

### Harremanetarako

Tf/Faxa: 943 36 11 14.

E-posta: [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

## Udarregiko ikasleen errifa zozketa

Udarregi ikastolako ikasleek saldutako errifen zozketa egin dute. Afari ederraz dastatu ahal izango du, 754 zenbakidun txartela esku artetan duenak. Helburua, ikasturte amaierako bidaiarako ahalik eta diru gehien biltzea da. Bestalde, ikasle taldearen izenean gogorazi nahi dute, egin dagoela antzeko beste zozketa bat. Orduko hartan, 588 zenbakia zuen errifa izan zen sariduna. Dagoeneko, badu jaberik txartel hark. Barkamena eskatzen dute, jakinarazpenean berandutu izanagatik.

# Sahara,

## Bengoetxea anaien bizi-esperientziatik

**A**benduan izan ziren Ixidro eta Joxe Mari Bengoetxea anaiak Saharan. Azken hiru urteetan, haur sahararrak hartu dituzte haien baserrian. Oraingoan, haur sahararrek eta haien senitartekoek bizi duten errealitatea gertutik ezagutzera joan dira. Egoera latza bizi dute, ezer gutxi dute, baina beti haiengana joan-dakoei guztia emateko prest.

**NOAUA!** Zer moduzkoa izan da Saharako bisitaldia?

**Joxe Mari Bengoetxea.** Ona, polita. Merezi du ikustea haien egoera nolakoa den. Ez dakit hala egingo dugun, baina berriz Saharara joateko asmoa behintzat badugu. Hemendik, Saharako errealitatea modu batean ikusten da; baina hara joanda, beste modu batean. Tristea da, haien egoera latza da. Iazko uholdeek etxe pila bat bota zituzten. Egun guttian lanean igarotzen dute, baina horren emaitzarik ez da ikusten. Lanabesik ez baitute; pala eta aitzur bat besterik ez. Masa lurrian egiten dute. Horrela lanean ari zen bertako familiako kide bat hezurra eta azala zela ikusi genuen.

**Ixidro Bengoetxea.** Ezin da irudikatu. Ahuntzek papera jaten dute edota kartoia ematen diete elikagai gisa. Bertan izan gabe hori esatearekin ez duzu irudikatzen nola bizi diren. Ez daukate lanik... ezeren aurrerapenik ez dute. Oso gogorra da. Etxebizitzak egiteko hondarrarekin ura nahasten dute eta lehortu ostean, nahiko gogorrak geratzen dira. Urak harrapatzean, ordea, berriz desegiten dira. Etxe bat egiteko lan handia egin behar da. Horregatik, te asko hartzen dute lan etenaldietan, oso lan geldoa baita. Eguzkitan egun osoan. Bertan egon ginenean, lanean lagunduko geniela esan nien. Harrituta geratu ziren, aitzurra erabiltzen nekiela ikusi zutenean.



ABENDUAREN HASIERAN, ASTEBETEZ IZAN ZIREN SAHARAN.

**N. Astebetean nondik nora ibili zarete?**

**I. B.** Bi familietako kideak izan ditugu etxean. Horregatik, egonaldia bi familiarekin egoteko baliatu genuen. Baina horietako bateko kideak Argelian ikasten daude eta horregatik, falta ziren. Haiek udaran joaten dira etxera.

**J. M. B.** Eguneroko buelta bat ematera ateratzen ginen kanpora, gamelu zahar-rarekin argazkiak atera... Han ibiltzera joateko ere, dena hondarra baita. Mendi koxkor batzuk besterik ez daude. Gainera, ez dizute bakarrik ibiltzen uzten.

**N. Han egon zareten denboran, zein izan da bizi ahal izan duzuen egoerarik gogorrena?**

**I. B.** Haiantzako ez da gogorra, bertan jaiok baitira. Egun bat gehiago haientzat. Zerbait aipatzekotan, zaborra ez dutela biltzen.

**J. M. B.** Haien bizitokiaren ondoan, zabor guztia bertan aurki zitekeen. Ahuntzak eta animala guztiak bertan botatzen zituzten. Bestalde, hanka

hutsik ibiltzen dira. Harriak baino gogoragoak dira. Ohituta daude bizitza gogor horretara.

**N. Haien bizimoduko egun bat nolakoa da?**

**J. M. B.** Gu egon garen lekuetan behintzat, jaiki orduko tea egiten hasten dira. Gero, ahuntzei jana ematera atera, bertakoei lagundu... Bazkaria segituan. Eskola joaten ez direnek bestela ez dute zereginik. Ezer ez dute, baina duten guztia emateko.

**I. B.** Familiakoren bat erosketak egitera joaten zen. Hortik aurrera, otordua prestatzera. Kanpoko jendea dagoenean oso ezberdina da. Dena ematen dute. Janaria oso ondo lantzen dute; oso goxoa jartzen dute. Bai dilistak, entsalada, gamelua... Sukaldea kandela batekin argizatzen dute. Azkenean, zuretzat daude. Aspertuta ikusten bazaituzte, haiek segituan konturatzen dira eta osteratxo bat egitera gonbidatzen zaituzte. Haiek zu gustura egotea nahi dute. Baina haien eguneroko bizimodua ez da horrelakoa izaten.

Egunean zehar ez dakit zer egingo duten.

**N. Sahararren eskuzabaltasuna nabarmentzekoa da ezta?**

**I. B.** Xelebrea da. Zuri ematen dizute dena jateko.

**J. M. B.** Guk platerean utzitakoa jaten zuten haiek. Gainera, esan eta esan arren, azken egunean bakarrik lortu genuen haiek gurekin batera jatea.

**N. Berez oso egoera zailean bizi dira. Are okerrago, duela urtebeteko uholdeen ondorioz?**

**J. M. B.** Etxe asko erorita daude. Batzuk guztiz erorita, besteetan paretak zartatuta.

**I. B.** Uholdeen ondorioz, eroritako etxeak bertan deseginda utzi eta etxe berriak ondoan egin dituzte. Horregatik, eroritako etxe asko ikusten ziren. Hildakoa ere bazen. Teilatua gainera erorita, gauean ustekabeen harropatuta. Eguraldi txarra datorrenean, haien ohiko etxebizitzak utzi eta toldo baten azpian sartzen dira. Ura sartuta ere, gutxienez, gainera ez zaie erortzen. Eta erorita ere, arriskurik ez.

**N. Hain bizimodu zaila izanda, horri buruz haiek zer diote?**

**J. M. B.** Ez dute guri buruhausterik eman nahi izaten. Gu jaikitzerako askok lanera alde egiten dute. Ez dute askorik kontatzen.

**N. Zuen baserrian haur sahararrak izan ondoren, joan zarete bertara?**

**I. B.** Baserrian, hiru urteetan izan dira. Hasieran, baserrian izan zen mutil gaztea beti hanka hutsik ibiltzen zen. Beti oinetakoak janzteko esaten baina kasurik ere ez. Lurrean bueltaka ibiltzen zen. Geldiarazi beharrak zeuden askotan, beldurra ere ematen zuten. Bere arreba nahiko bizia zen. Beste familiako neska beti amari laguntzen aritzen zen. Orain han egon garenean ere berdin. Oso adeitsua da. Oso jende ona.

**J. M. B.** Baloiarekin jolasten, harri kozkorren gainean. Oso gogorrak dira. Gu egunero ez ginen haiekin egoten baina segituan konfiantza hartzen genuen.

**N. Haur sahararrak zuenean izan direnean, zer izan da gehien baloratu dutena?**

**I. B.** Urarekin. Iturrira joan ura hartzera, pixka bat edan eta gainerakoa edalontzian uzten zuen. Berriz, egarri zirenean bertatik edateko. Guk gainerakoa arraskara botatzen dugunean. Urarekin asko harritzen ziren. Bestalde, hemen zirenean, hondartzara joateko beste konturik ez zuten izaten. Uretara sartu eta beldurra ematen zuten. Igeri jakin ez arren, bertan ibiltzen ziren. Beldurrik gabe, aingira bailitzan.

**J. M. B.** Han gutxi alferrik galtzen baitute ura.



### “Guretzat gutxi dena haientzat asko da”

NOAUA! Urtarrilaren 26ra arte luzatuko da sahararren aldeko oinarrizko gaien bilketa kanpaina. Laguntza guztia beharrezkoa da haientzat.

**J. M. B.** Bakoitzak huskeri bat jarrita ere, hori beharrezkoa dute eta sahararrek eskertuko dute. Ia animatzen den jendea. Bakoitzak kilo bat jarritz gero, kilo asko lirateke. Guretzako ez du ezer suposatzen; urte amaieran berdin izango baikara.

**I. B.** Guretzat gutxi dena haientzat asko da.

ARITZ GORRITI \_\_\_\_\_

## Oinarrizko gaien bilketa hilaren 26ra arte izango da martxan

**B**ehar beharrezkoa dute Saharan. Duela aste batzuk ekin zitzaion Saharara bidaltzeko oinarrizko gaien bilketari. Hirugarren urtez, oinarrizko gaiekin betetako karabana osatu nahi da. **Atuna, azukrea, arroza, dilistak eta konpresak** jasotzeko guneek ipinita jarraitzen dute hiru lekutan; **Udarregi ikastolan, Dia eta Aliprox saltokietan.** Urtarrilaren 26ra arte

aipatutako oinarrizko gaiak uzteko aukera izango da. Bestalde, ekarpena dirutan ere egin daiteke. Hauxe, kontu korronte zenbakia: 3035 008049 08 00054177. Informazio gehiago nahi izanez gero 619 029 648 telefono zenbakira deitu edo helbide elektronikora e-mail bat idatzi besterik ez dago:

[ucs-sku@euskalfondoa.org](mailto:ucs-sku@euskalfondoa.org)



# Kontribuzioan hobariak izango dira familia ugariarentzat

**U**surbilgo udalak 2007. urtean indarrean egongo diren zerga, tasa, prezio publiko eta kontribuzioen ordenantza fiskalak onartu ditu. Hiri Izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko zerga edo kontribuzioari dagokionean, 2006. urtean bezala familia ugariarentzat hobaria onartua izan da. Interesatuak informazioa udaletxeko zergabilketa sailean eska dezakete.

Aplikazioaren zerga aldiari dagokion sortze egunean familia ugaria-

ren titular izaera daukaten Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

-Interesdunaren eskabidea, udalak erraztuko du eredia.

-Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua.

-Udalak urtarrialaren 1ean familia unitateko kideak erroldatuak daudela egiaztatuko du.

Hobariaren eskaera 2007ko otsailaren 28a baino lehen egin beharko da.



## 2007 urteko udal zerga egutegia

**U**surbilgo udalak 2007ko zerga egutegia onartu du eta ondorengo epealdiak zehaztu dira zerga desberdinak ordaintzeko.

**Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga:** Martxoaren 1etik maiatzaren 2ra arte.

**O.H.Z.** (Ondasun Higiezinaren Zerga edo kontribuzioa, landa eta hiri izaerakoak) Maiatzaren 15etik uztailaren 4ra.

**E.J.Z.** (Ekonomi Jarduera Zerga) urriaren 1etik azaroaren 10era bitartekoa.

**Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa):** irailaren 1etik urriaren 1era arte.

Helbideratutako erreziboak epe bukaeran kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean.

**Ura, estolderia eta zaborra-hiruhilabeteroko erroldak:**

4. hiruhilabetea (2006): otsailaren 1etik martxoaren 15era.

1. hiruhilabetea: ekainaren 1etik uztailaren 15era.

2. hiruhilabetea: irailaren 1etik urriaren 15era.

3. hiruhilabetea: azaroaren 1etik abenduaren 15era.

Helbideratutako agiriak borondatezko epearen amaierako hilabetearen aurreko egunean kobratuko dira.

**Asteroko merkatuaren erabilpen tasa:**

4. hiruhilabetea: (2006): urtarrilaren 1etik urtarrilaren 30era

1. hiruhilabetea: apirilaren 1etik apirilaren 30era.

2. hiruhilabetea: uztailaren 1etik uztailaren 30era.

3. hiruhilabetea: urriaren 1etik urriaren 30era.

Helbideratutako erreziboak epe bukaeran kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean.

Errolda fiskalek biltzen dituzten agiriak, likidazioak ez direnez, agiriak kolektiboki jakinaraziko dira, helbideratu gabe dauden kasuan komunikazio gisa agiriak korreo arruntaren bidez bidaliko direlarik.

Obra baimenaren zergak, jarduera irekiera zerga... Tokiko Gobernu Batzarrak edo alkatetza dekretu bidez hartutako erabakiarekin batera dagokion kitapen edo likidazioa jakinaraziko da zergadunaren helbide fiskalera, bertan adierazten den epean ordainketa egin dezan interesatuak. Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan premiamendu bidezko jardunbideari ekingo zaio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotek dagokion gainkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.



## Lan mundua euskalduntzeko plana aurkeztu da

**B**uruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera normaltzeko programa aurkeztu zuten urtarrilaren 16an. Andoaingo udalean ekimenean parte hartzen duten ordezkariak eskaini zuten prentsaurrekoan, eskualdeko enpresei proiektuan parte hartzera dei egin zieten.

2002. urtean Buruntzaldeko udal-tako euskara zerbitzuak hitzarmena sinatu zutenetik, alor ezberdinetan euskararen inguruko egitasmoak lan-tzen aritu dira; familian, merkatarit-zan, kirolan, aisialdian... eta lan mun-duan.

Enpresetan euskara bultzatzeko eki-mena urtarrilaren 16an aurkeztu zuten Andoaingo udalean. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuorde Patxi Baztarrika, EMUN kooperatibako ordezkari Ibon Usarralde eta hiru udaletako euskara batzordeko lehendakariak bildu ziren; Txema Mercado, Juan Mari Iradi eta Toñy Landa, Hernani, Lasarte-Oria eta Andoaingo udaletako ordezkariak.

Ikasketak euskaraz egiteko aukera izan duen belaunaldiari, hizkuntza berean lan egiteko aukera eskaini nahi da. Proiektuaren giltzarria elkarlana izango da. Hirugarrenez, Buruntzaldeko Udalek EMUN koo-



Argazkia: Baxi Ubeda

LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO EKIMENAREN HIRUGARREN EDIZIOA AURKEZTU ZEN ANDOAINGO UDALEAN. ESKUALDEKO ENPRESEI BERTAN PARTE HARTZERA DEI EGIN ZEN URTARRILAREN 16KO PRENTSAURREKOAN.

peratibaren zerbitzuak kontratatu dituzte. Sindikatu, udal ordezkari, teknikari eta Lanbide Heziketako ikaste-txeen ordezkari osatutako Jarraipen Batzordeak egitasmoaren jarraipena egingo du. Datozen asteetan, 24 enpresa bisitatu eta euskara planak abian jartzera gonbidatuko dituzte. Prentsaurrekoan, ekimenean parte hartzeko gonbita luzatu zieten enpresei.

Hala gitea erabakitzen dutenek, euskara planak diseinatu eta garatzea-

ren truke udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jasoko dituzte.

### Usurbilgo bi enpresa

Aurreko bi urteetan egindako lanaren ondorioz, eskualdeko zazpi enpresetan gauzatzen ari dira euskararen normaltze planak. Tartean, Usurbilgo Victorio Luzuriaga eta S. Izaguirre enpresatan.

ARITZ GORRITI \_\_\_\_\_

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

**URDAINTZI S.L.**  
araituntza

943 367 264  
943 435 475  
943 435 476

**JOSUE**  
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA**  
eta  
**PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Kalegar  
Telf: 606 37 21 05

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

# Manifestazio jendetsua

**U**surbil Bizirik, Lasarte-Oria Bizirik eta Zubieta Lantzen plataformek deituriko manifestazioak milaka lagun bildu zituen. Batasuna, Aralar, Ezker Batua, LAB, ELA, EHNE eta beste elkarte eta taldeetako ordezkari ugari izan ziren jendartean. BTK perkusio taldeko musikariek alaitu zuten lehengo igandeko manifestazioa.

Hamabiak jota abiatu zen Bordatxo ondoko errotondatik manifestazioaren zati bat. Herri sarrerako errotondan, ordea, zain zituzten Zubietatik zein Andatzatik oinez etorritako zutabeak. BTK perkusio taldearen erritmoan batu ziren denak, baita Zizurkil, Aduna, Villabona, Asteasu, Aia, Orio, Ibaeta, Añorga, Igeldo, Ibaeta, Zubieta eta Lasarte-Oriatik etorritako herritarrak ere. Ibilaldia zabalduz, idi pareak, zaldiak, astoak eta traktoreak. "Baserría bizirik" zioen traktore batek eskegita zeraman txartelak.

Manifestarien artean, alderdi politiko eta sindikatuetakako ordezkariak zeuden: Batasuna, Ezker Batua, Aralar, Usurbilgo Herri Lan, ELA, LAB, EHNE, Eusko Abertzaleen Ekintza, Donostiako Baga Boga, Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkartea, Txingudiko Medikua, Txingudi Bizirik eta Ekologistak Martxan.

## Dema plaza, Sagardo Egunean bezala

Erraustearen aurkako martxak Kalezar aldera jo zuen lehen-lehenik. Olarrondotik barrena, Atxegaldarako bidea hartu zuen manifestazioak. Udaletxe aurretik pasa eta gero, Kale Nagusitik Dema plazara iritsi ziren manifestariak. Sagardo Eguneko itxura hartu zuen plazak. Txalapartari eta bertsolarien doinuak entzun eta gero, Usurbil Bizirik, Zubieta Lantzen, Lasarte-Oria Bizirik, Zubietako Herri Batzarrak eta errauste planten aurkako Gipuzkoako Plataformen Koordinadorak egindako manifestua irakurri



ADIN GUZTIETAKO HERRITARRAK BILDU ZIREN AURREKO IGANDEAN USURBILEN EGIN ZEN MANIFESTAZIDAN.

zuten Ixabel Agirresarobek eta Jose Piñasek.

## ALTERNATIBAK

Erraustegiaren aurrean,  
bestelako alternatibak  
badirela azpimarratu zuten  
deitzaileek

Foru Aldundiko, mankomunitateetako eta udaletako ordezkariak zuzenduz, kokapen berriak legea urratze duela adierazi zuten: "Ez dute zabor kudeaketari buruzko eztabaidan sartu nahi, eta kokapenen jokoarekin ziria sartu nahi digute. Baina zer inporta du 200 metro Lasarte aldera edo Usurbil aldera jartzeak? Jakina da erraustegiak 10 kilometrotan osasunerako duen eragin kaltegarri nabarmena, eta beste 20 kilometrotan eragin zertxobait txikiagoa. Hala ere, legeak lehen 2 kilometroak bakarrik babesten ditu, eta hala ere, legea hain motz geratu arren, ia 25.000 biztanle mugatu ilegal horren barruan gaude".

Errauste planten aurrean, bestelako alternatibak badirela azpimarratu zuten. Gipuzkoan posible dela zaborrak kudeatzea erraustu gabe, baina horretarako

jendearen parte-hartzea ezinbestekotzat jo zuten, bereziki zaborra gutxitu eta sailkatzeko garaian.

## Auzitara jotzeko aukera

Donostiako udalaren gobernu batzordeak abenduaren 29an eman zion oniritzia errauste planta Zubietako Artzabaleta gunean egiteari. Usurbil aldera dago Artzabaleta eta horregatik egin zen manifestazioa lehengo igandean Usurbilen.

Antza denez, urtarrilaren 30ean Donostiako udalbatzak errauste planta Artzabaletan jartzea eztabaidatuko du. Udalak ez du oraindik hori baieztatu baina hala diote Donostia Biziriketako kideek. Kide hauen ustez, oraindik garaiz dabilta proiektua geldiarazteko. "Irutxuloko Hitzan" egindako adierazpenen arabera, "auzitara joz gero, geratu daiteke. Arazoa da epaileek oso berme handia eskatuko luketela prozesua gelditzeko. Horren aurrean herritarrak hankamotz gera gaitzke". Baina herritarron ordezkari dira udalak eta Usurbil eta Lasarte-Oriako alkateek ere auzitara jotzeko aukera azaldu dute. Indar denak batuko balira...



## Usurbil, erraustegia jarri nahi duten tokitik ikusita



Argazkia: I. Salsamendi

**D**onostiako udalaren gobernu batzordeak proposatu duen kokagunetik gertu aterata dago argazkia. Erraustegia Artzabaletan egingo balitz, honela ikusiko

litzateke Usurbilgo herria. Beraz, Usurbildik ere, begibistan legoke erraustegia, edo erraustegiaren tontorra bederen.

# Egizak/n txotx!

**N**OAUA!ko ale hau esku artean izaterako, inauguratuta izango da sagardotegiaren denboraldi berria; 2007. urteko txotx garaia. Azken hilabeteetako uzta dastatzeko garaia iritsi da. Aitzakia txikiren bat izan bezain azkar, sagardotegietarako bidea hartzea ezer gutxi kostako da. Egunez, gauez... herritar uholdea nabaritu da sagardotegi eta inguruko herrietan.

Kupela bateko eta besteko sagardoa edan. Eta noski, sukaldariak prestatutako menu goxoa dastatuko da; haragia, bakailaoa, intxaurreak, gazta... Sagardoa janariari ezarri zuloatik sabelera bultzatzeko. Edo janaria sagardoari laguntzeko. Modu batean edo bestean, egin dezagun... Txootx!



ASTE HONETAN HASI DA TXOTX GARAIA.

## Txotx egitera... autobusean

**O**rain hasi eta Aste Santua arte, asteburuan izan ditzaketen beselako irteerez gain, koadrila askoren bidaia-lagun izango dira Euxebio eta Aizpuruako beste autobus-gidariak. Batek baino gehiagok autobusez egingo baitu sagardotegirako bidea.

**NOAUA! Txotx garaia nabari al duzue?**

Euxebio Aizpuru. Bai. Ostiral iluntzetan gehienbat. Ostiralero lauzpabost autobus irteten dira. Larunbatetan bizpahiru. Beraz, nabaritzen da. Sagardotegi batzuetan, 30 autobus ere biltzen dira.

**N. Zer nolako eskaintza duzue?**

E. A. Batez ere, 35 urtetik beherako koadrilak bizi diren jaioterritik sagardotegira eramaten ditugu. Sagardotegian itxaroten dugu gauerdia pasatxora arte. Gero, orokorrean, Donostiara edo Hernanira eramaten ditugu. Goizaldeko hirurak aldera parranda lekutik haien jaioterrirako bidea egiten dugu. Topera

badaki norberak noiz itzuli behar duen etxera.

**N. Itxaron beharreko denbora tartea, zuei ere luze egingo zaizue, ezta?**

E. A. Bizilekutik gertu geratzen bazaitu, etxera etortzen gara. Eta gero hiruretan haien bila joaten gara. Baina urruti geratzen bada, han zain egoten gara. Siestatxo egin eta zerbait irakurtzen. Baina gure lana da eta jada ohitu gara.

**N. Nolako eskaerak jasotzen dituzue?**

E. A. Koadrilak izaten dira orokorrean. Beasaindik barrualdera, kostaldean Zumaiaetik alde honetara bizi diren koadrilen eskaerak jasotzen ditugu. 30-35 laguneko taldeak izaten dira.

**N. Autobusa, autoa etxean uzteko irtenbiderik onena, ezta?**

E. A. Dudarik gabe. Hartara, konpromisoak alde batera utzi eta lasai norbere lagunekin parrandatxo egin daiteke inolako arazorik gabe. Autoa non utzi eta



EUXEBIO AIZPURUA,  
AUTOBUS-GIDARIA.

gero berriz hartu beharraz arduratu gabe. Autobusak etxean hartu eta gero, etxean uzten zaitu.

**N. Horrelako irteerak autobusez egiteko ohitura zabaldua al dago?**

E. A. Orain pixka bat gehitu da. Baina beti izan da ohitura. Errepedetako gertaerek, alkoholemia kontrolek... eragina dute.

## Sagardotegiak, bertatik bertara

